

0090114). 1799. 2000 Ekauletza  
Haite Aizate Sola  
Frain aurto Aizatekoa  
31110 Laeko -  
70ki Ono-Bate

## LESAKAR SAKRISTAN BATEN OROIMENAK

Parrokin, san Martineko parrokin 14 urtetan monagillo, eta gero 50 urtetan sartu nintzen sakritan fijo. Enteintzen?

Eta egitten nun goiztan seitan beti argi ezkilak jo, ordun seitan argi ezkilak jo, egurdiko ordu batin ezkilak jo, eta gero arratsaldin garizuma denboran 3tan 3 kanpanada. Hori erraten zen "la llamada de Jesu Cristo" zela hura. Ta arratsaldetan jotzen genun beti segun nola denbora zen udan beranduxigo ta negun goxigo erroario kanpanak, 3.

Hurrengo goizin meza izaten zen beti goizeko zazpitan, bigarrena zortzitan eta hirugarrena ofrendako meza zortzi t'erditan. Eta gero ez bazen entierrik edo suertatzen egurdi arte ez zen deusere izaten. Gero eguerdin jo bihar genun berriz ere kanpaiak eta gero hiltzen bazen norbaitere abetsa, eramin bihar zen bildotsa. Andre batek eramiten zun bildotsa eta hura utzi bihar zun elizako aldare exkinin, eta segundakoak hiltzen zirenin eramin bihar zen bakailua.

Eta gero pues ofrenda itten zen apezta eta sakristan artin partittu. Gero errege eguna etortzen zen eta errege egunin izaten genittun hiru ofrenda, dirua, sagarra eta naranja enteintzen? Ta biltzen zen zako koxkor bat frutakin ta... Hura itten zen ordun Parrokuk doblia ta sakristan ta igual.

Eta gero pues bataiua suertatzen zenian ordun zen oittura pila betetzekua, eta eduki bihar zenun beti udan ura epeldua gero botatzeko. Karo lehen baziren hainbertzen tonteri! Eta arratseko zortzitan negun jeisten ginen handik betik udan beranduxigo. Eta hola ziren gauzak...

Ta gero bazen konstunbre handiya, hiltzen bazen norbaitere bi urtez pizten ziren kandel bat eta argizariya. Urte bat itterakun itten zen urtemuga ta ordun argizariya bakarrik uzten zen.

Eta gero ailetzen zen Aste santua. Ordun ateitzen genittun elizako santu guziyak eta prestatu ta garbittu prozesioa itteko.

Baserritan norbait hiltzen zenikan auzoko gehiena joaten zen errosariua erreztera eta gaberdin ematen zuten zopa edo gisadua ta gero egoten ginen goizko bostak arte edo seiak arte ta generalin ordun zen ohitura familiako batek tor bihartzun komulgatzera haren intentzionin.

Gero hurrengo egunin generalin goiz izaten ziren entierruk, gu goizin juaten ginen haren etxera ta..

Gero oraindela 20 urte edo difuntorik ez zen sartzen elizan, gero ez dakit Franko denboran zerbaitere in zuten, zor genional elizari ez dakit zer ta ordun hasi ziren gizak sartzen. Bittarte arte uzten ziren atin.

Eta gero gainera zen , auzoko gizon ezkonduk eramin bihar zuten ezkondua zen andria, soltera baldin bazen, jende gaztik eramin bihar zun eta soltera bazen hiltzen bazen itten zen kaja xuria. Ta gizona berriz beltza.

Ta gero primerakua baldin bazen juan bihar ginen gurutzikin arropa onakin ta segundua baldin bazen, arropa xartxigukin ta guruze txikixigukin. Gero zegon ohitura pues ofrenda in bar tzuten, leno erraten genion por ejemplo xinko jabia harek azken azkenekua in baitzun. Bera ofrendakin eta han untzuan espetzen zuten hura ofrendakin herrira etorri bittarte. Gero primerakua zenin andre batek ekartzen zun bildotsa saki batin burun elizara.

Eta gero meza bittarte bildotsa hura in bartzen ez jan, meza akautzen zenin partitzen zen apaizentzat eta sakristanentzat deuserc. Bigarrenak, segunda klasekuk eramin barra

zuten bakailua, 2 bazela edo 3 bazela, eta beti erraten zuten, ze gauza, pobrik izan ezkeru beti jenderi gutxixigo ta hola.

Gero pucs, bi urte bittarte kandela ta argizaya pizten zen ta gero urtemuga ittin kentzen zen kandela. Eta zu ezin bazinen etxetik ibili paratzen zen haren ordekoa pagatuta elizan ibiltzeko. Baldin bazinen zu baseritik ezin torri ekartzen zuten bat, hura pagatzen zuten ta harek juan bihar zun elizara.

Gero lehenbizikua hiltzen zenin, Lesakan zen baserri batera... bi baserri ziren, bertara juan bar tzela, lengo erregia etortzen zenin, antzinako gertan, han geldittu omen zen lo ittera, etxi hortan enteintzen? Ta harek erran omen zion aver zer nahi zuten oparitzeko. Ta erran zuten, ofrenda lendabizkua elizan eta difuntua eske etxera etortzeko. Ta juaten ginen difuntua eske Ubirira, baserrik zun hola izena. Ta han patzen zuten atin mai bat, ta han patzen zen intxaurrek, sagardua, sagarrak, ta gazta ta ogiya guk jateko.

Hok jaten genun guk denak, hartu difuntua ta tortzen ginen betti. Gero bertze itxe bat bazen, binon kanbiatu ziren, horrek segitu omen bihar zun beti ta erran omen tzioten ere ya ze nahi zuten ematia: bere umik seme zarrena izateko itxeko, ta gero, oain dela denbora pixko bat gazteguak zirenak ez tziren conforme ta egin zuten kanbiatu. Lengo zarrak ola baitziren gauzak zarrenak eta zarrenak eta ola...

Gero norbait hiltzen bazen, haur bat, eramin bihar zuten 4 nexkak, muttikua baldin bazen muttikuk ta nexka bazen nexkak, enteintzen? Ta lau nexkak juan bihar ziren kaja eraimtera ta gainera bertze lau kandelakin. Ohiturak holkuk ziren leno... eta gero oain dela urte gutti, 20 urte do, ez gehigo izanen da, gehigo gehigo, ez ziren sartzen ez haurrik ta ez difunturik elizan. Ta gero nik ez takit Franko garain do zer tzen elizari

zor ziola do ez takit zer... Ta gero bertze ohitura bat zen berriz, oain ez takit binon 24 ordu ezin zen entertu.

Ezkontzak izaten ziren abetsa xamarrak edo elegante xamarrak xuriz jantziya, e xuriz. Bertze baserritarrak ta pixkot pobrixiguk beltzez. Eta baldin baziren hijas de Maria, ordun aldare nagusin esposten ziren. Ez baziren hijas de Maria esposten ziren aldare exkinin, bertze San Josen aldare hortan. Hijas de Maria zen nik ez takit kongregazione bat, ta zen hori ta ezin zen egin mutilekin dantza! Bai hola zen...

Eta gero lenbizikoa bazen xuriz jantzia dena, Hijas de Maria bazinen aldarin, pobre izantare, oain, ez bazinen hijas de Maria aldare eskinin, hola izaten ziren gauza hok...

Bataiuk izaten ziren jaio ta hurrengo egunin ozinas. Eta bataiua itten zen atautxi ta amautxikin. Atautxi ta amautxi paratzen zioten bizkarganin eskekua, enteintzen ta hark ez ziren atautxi ta amautxi. Eta bitu autautxik, atautxik in bartzun betik errezutu kredoa, beti enteintzen zu?. Ta ataxi langunerokin balidin bazen, ta amautxi ere bati, in bartzun eta autautxi lagunakeri bazun obligaziñua kredua errezteko.

Ta gero bataitu ta hamar egunen buru, amak juan biharra zun semikin elizan sartzera. Ta ordun sartzen zen, etortzen zen apaiza elizko atera ta epistola ematen zion, hori, horren amari, sartzen zion elizara ta bazen hor holko silla bat ta, silla hortan jarri ta itten zun bere oraziua do holko zerbait.

Entierrotan eraman bihar tzuten eben kapa, ta etzuna kapik intten zun bertzikeri eskatu, eta denak juaten ziren kapakin. Eta gero juaten ginen gu elizara, ta bazen apaiz bat

izena zula Don Francisco. Ta harek itten zun beti ur bedekatua ateri denak sartzeko elizan. Gero aiteitzen ginen denak eliztikan, elizko atin espetu bihar izaten genun.

Ta gero Korpus egunin, itten zen prozesioua binon denak etxe guzitan, kasi herriko etxe guzitan patzen ziren banderak balkoitik zintzilikan eta sobrekamak zintzilikan eta... Eta plaza bittarteño. Plazan denskansten zen eta gero berriz etortzen ginen elizara, gauza guztik uzteko ta hori.

Bertze prozesiua San Pedron egiten zen beti prozesiua. Ta hura ere berdin buelta berdina eta etxik ere adornatuk do zerbait. (...)

Ta azkeneko azkenko prozesiua izaten zen abenduak zortziyin. Gero bertze gauzak ere itten ziren hola, (...)

Komuniua itten zen , lehenbiziko komuniua itti, itten ziren gimalda haundi batzuk , girmaldak e , girmalda haundik e igual 10 metrokuk. Ek, lenbizko komuniua in bar tzutenak alde batetik ta atzetik. Nexkak eraintzen zuten ama birgin ttiki bat bizkarrin prozesairuan. Muttikuk izaten ziren niño Jexux de plaga, hori itten zen beti salvatore egunin. Len hola ziren gauzak...

Ta gero itten zen bertze ohitura bat 12 urtetan erraten zena komunidad solemne. Ta ez bazenekizun dotrina ongi etzenun egitten. Atzera hurrengo urte arte, 4 parte ikasi bihar izaten genittun ongi 4 parte izaten baitziren len. Dotriña ikasi bihar zenun ongi komunidad solemne egitteko bertzela etzuten ematen, erraten zuten eztuzu. Gero txartelak hartzen genittun bazkuak itteko, txartelak. Apeza juaten zenikan txartela eske itten zun dotrina galdetu. Ta batzuk ez genunak ongi ikasten baziren apaiz batzuk

gutti xamar eskatzen zutenak, ta gu harat juaten ginen txartelak eske. Gero txartel hoiek in bihar genittun firmatu ta gero bandejan utzi. Bai.

Ta gero deskuidun mutil bat neskakin dantzan ibiltzen bazen hijas de Maria, segittun juan ta kentzen zieten medaia. Segittun kendu medaia, bai bai. Ta gainera hilautin lenbizko igandin itten zen hijas de Maria komuniua., ezin zinen juan medaik gabe. Ta ordun batzuk antzi, ta bertzikeri bueltan hartzen zieten medaia.

Sakristana bedeintzeko egin omen zuten herryin, nola bedeintu sakristana, enteintzen? Ta in omen tzuten urtin eskaria etxe guzitan. Ta batzuk ematen zuten gazta bestik arrautzik artua...ta dirua. Ta horrekin bizi zen sakristana urte guziyin. Ta gero pos karo denbora horretan, etzen herriyin lanikan, hemen etzen deus, juaten ziren Frantzira ta Amerkira, ez paitzen ez paitzen hemen jeus. Gero sakristan sartu ta raten ziaten, ez tuzu beiñe izanen barkaziorikan ez igandetan ez jeuse.

Kanpaiak jotzeagatik, herriyak ematen zian 100 duro urtin, kanpanak jotziagatik 100 duro urtin. Gero bizitza juan zen kanbiatzen eta baziren sartu bihar zirenak ayuntamientun berriyak, ta eskatu ziaten botua, ta nik erran nun, bai nik emanen dizut botua ta nahi zuna, biñon aizu soladata goittu biharko diazu pixkot, " bai gizona bai".Ta ez ziaten subittu,. Ta erran nion boto eman niola ta ia non tzezon nire lana ta, " bai exkin batera dirua, ta beste exkiñera dirua, hemen ez tuk dirurikan" Ze ixtoriak, ze ixtoriak.

Ni ibiltzen nintzen udan peon bezala baratzetan ta hola. Ta gero urteko eski horrekin defeintzen nintzen. Ta gero nittunin 18 urte do gehixigo, eskatu nion antziko

parrakuri bihar nula zerbattere ona do juan bihar nula kanpora lanera, ta ordun errantzian bueno emango dizut nik elizan zerbait, zergatik elizak zittun bere gizonak justo. Ta orduztikan lanin hasi nintzen. Ta bigarren hilauteko soldatakin ja nun trajia iña. Gero apaiza portatzen nerekin ongi hagitz, bertze sakristanakin ere. Nonbaiten zerriya hiltzen zenin, presentik jeneralin ekartzen zuten dena, ta laguntza dirua ez, binon jana bederin ja eman, horrekin laguntzen zuten.

Ta gero nere harek, bi alaba bazittun, bat neskato, gero ama hil zen ta etorri ziren etxera. Ta bertze ahizpa aritzen zen galtzak jositzen. Ta hola bizi ginen. Oain jendik jana edozengatik badu, binon len ezen dirurik izaten, ez paitzen dirurik. Jendia juaten zen Frantzira ta Ameritara ez paitzen ez paitzen ailetzen.

Gero sakristan egin ta utzi nun baratzia, gero sakristan utzi bar nula ta utzi bar nula, ta ezkondu nintzen ta azkenin utzi nun. Binon berriz ere hasi nintzen, binon azkenin ja, infartua eman zian ta utzi nun. Gero re biziya hagitz garestia zen, albak ikasten ta... lan haunintz in bar tzen... utzi nun hirutan hogeit ta lau urtekin utzi nun, 14 urtetik hasiya. Gero sartu nintzen panadero, gero utzi nun, utzi nun panaderia ta utzi nun eliza, hirutan hogeita lautan .

Etortzen bazen norbaitere elizako bihar ttuztenak zerbaitteko bihar tzenun ordu kuarto bat leno 3 kanpana jo, herriyin baldin bazen 5. Ordu bazekiten herriyn nondik etortzen ziren. Ordun juaten ginen gu kandelakin ta juaten ginen itxetara ta hak atin espetzen ziguten. Baserrikuk baldin bazire 3.

Graziosoa, ez zait inoiz pasatu. Egun batin hasertu nintzen izebakin. Ta nik in barra nun beti elizako atia itxi ta ez nittun itxi, hasertu bainintzen izebakin. Ta gero jua nintzen afaltzera ta kriston haserria. Ta biamunin seitan jo bihar nun ezkiya ta elizko ate guzik irekik! Jesus, denak begira sakristin niri ta zein bartzu, erran nion izebari. Zer nahi guziyak erran zizkian, jo gainera, jo gainera !! Bertzelako gauzikan ez tzait pasatu.

Jendik maite ginuten e, ematen ziguten edozein gauza... ta gero ni atei nintze, izeba hiltzen gazte hiltzen. Ta bertze izebak erain bartzun dena, ordun ez baitzen erretirorik ez deusere. Gero paratu zuten soziedade bat, pagatu bihar nun 50 pezeta hilautin, binon kasualidadia, ni erretiratu nintzenin in tzen desin len ez baitzen ofiziala desmintak, ta karo nik bittarte gastatu nun bastante ta ordun ez nun jeus kobratu.

Ta gero jo bihar izaten genun jai handitan bakizu kanpanak ta, Jose Karterok, Maria Rosak eta nik.